

HUHEZIKo ikasle bat, atezain Euskadiko selekzioarekin gazteen areto futbolean

2007/03/30

Martxoko laugarren astean **Imanol Ramos** ikaslea **Galizian** izan zen **Euskadiko areto futboleko selekzioarekin**, atezain jokatu zuen-eta **Espainiako gazte txapelketan**. Hiru partida jokatu zituen, eta, nahiz eta emaitzak ez ziren oso ikusgarriak izan, mutila pozik itzuli da etxera. Aitortu duenez, "primerako esperientzia" bizi izan du Galizian.

Imanol Ramos **Ikus-entzunezko Komunikazioa** ikasten ari da HUHEZIn, lehen mailan. Aretxabaletan bizi da, eta Eskoriatzako areto futboleko taldean jokatzen du.

